

PUBLIZITATERA GOAZI!

Telebista aurrean gozo gaudela, filmaren une gorenean, eta zotz! Publizitate tartea! Bertso saioaren erdian, horixe bera egin zuen Josu Goikoetxea gai-jartzaileak: iragarkiak asmatzeko eskatu zien bertsolariei.



Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Etxahun Lekue, Onintza Enbeita, Amets Arzallus, Alaia Martin

Saioa: Markina-Xemein, 2016-12-08.
Gaia: Zuen gustuko produktuen publizitatea egin behar duzue.



Doinua:
Kontu barri bat suzedidu da !!
Kopla edo lauko handia

Lizaso

Sarri askotan aipatu izan da saioaren **barrenean** **Insalus** ere ez dela txarra whiskirik ez **dagonean!**

Egaña

Nik ilearen aldegitai nolabait gura **erantzun** **Grecian2000** erabili ta zazpi mila izan **behar zun!**

Lekue

Niri **Salomon** oinetakoak geratzen jatez **ederto** ze onak diren mendiko botak asfaltotik **ibilteko!**

Enbeita

Nahiz eta jakin imitazino kutre xamarra zelan **den** nik **Pepsicola** eskatu ohi dot desberdina **izatearren.**

Arzallus

Ta Markina nola beti dagon kotxe, motor **bizioan** niri alemanak gustatzen zaizkit españolen **prezioan.**

Martin

Izan **Armany**, izan **Zergatik** izan **Loreak** **Mendian**, marka onenak izaten dira izarenak **aurpegian.**

Lizaso

Utzi **Danacol**, utzi **Benecol**, gora whisky ta **pattarra**, hori delako juerga garaian puntzionatzen dun **bakarra!**

Egaña

Ba ni bai jaten ta bai edaten ta bai janzten nauzu **fin** baina markarik ez det gogoan hori da markaik **haundina!**

Lekue

Etxeko argiak joan ezkerro ta argitu ezin **logelak** aukera onena zalantza barik: txinoetako **kandelak.**

Enbeita

Ta perfumea nik emoten dot beti **Carolina** **Herrera**, repelentea da hola esatea, baina klasea **horixe da.**

Arzallus

Gure aitak dauzka 80 oilo ta kukurruku **ozena** nahi dunarentzat han saltzen ditu hiru euroan **dozena.**

Martin

Ez **Carolina**, ta ez **Calvin Clain** ta ez **Bosgarren** **Chanella**, eskeintzetako zabalik gaude: patrozina **gaitzatela!**